

# Txertoa jartzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du Gurutze Gorriak, alarma-egoera amaitu ondoren adi egoteari utzi gabe betiere

- Euskadiko Gurutze Gorriaren zerbitzuek ia 3.000 laguni deitu diete Covid-19 txertatze-prozesuan laguntza eta akonpainamendua eskaintzeko.
- #YoMeVacuno kanpainari #OcioSeguro gehitu zaio gazteengan eragiteko.

**Gasteiz, 2021eko maiatzaren 19a.** Alarma-egoera amaitu eta murrizketa batzuk bertan behera utzi ondoren, Gurutze Gorriak nabarmendu du garrantzitsua dela adi egoteari ez uztea, babes- eta prebentzio-neurriak mantentzea eta txertatzearen aldeko apustua egiten jarraitzea. Ahalik eta pertsona gehien txertatzea da, osasun eta zientzia arloko agintarien arabera, pandemia hau geldiarazten lagun dezakeena. Txertoak murriztu egiten du norberaren eta inguruko pertsonen infekzio-arriskua, eta murriztu egiten du, halaber, osasun-sistema kolapsatzeko aukera, norberaren eta gizarte osoaren osasuna hobetuz.

Premisa horrekin, Gurutze Gorriak informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat sustatu du koronabirusaren aurkako txertaketari buruz. Horren harira, **Euskadiko Gurutze Gorriak 2.899 dei egin dizkie bere zerbitzuren batean erregistratuta dauden 65 urtetik gorako pertsoneri, txertatze-prozesuan akonpainamendua eta laguntza eskaintzeko**, eta, aldi berean, osasun-agintariek bidalitako jarraibideak aintzat hartzea gomendatu die. Zerbitzu hori izugarri eskertzen dute mugitzeko arazoak dituzten edo leku batetik bestera joateko baliabide pertsonalik edo materialik ez dutenek.

Euskadiko Gurutze Gorriko boluntarioek arriskuko biztanleak direla gogorarazi die zerbitzu hori eskatu duten adineko pertsoneri. Horregatik, txertaketari buruzko gomendioak emateaz gain, kolektibo horrek nahiz hurbileko pertsonen planteatzen dituzten ohiko zalantzei erantzun ere egiten diete boluntario horiek.

### **Ez utzi adi egoteari**

Gurutze Gorriak txertoa jartzeko beharra azpimarratzeaz gain sare sozialetan #YoMeVacuno kanpaina mantenduz, alarma-egoera eta ordutegi-murrizketak amaitu ondoren, biztanle gazteenengan jarri du arreta. #OcioSeguro kanpainaren bidez, eta "Amaitu dira murrizketak, hasi da erantzukizuna" bezalako mezu irmoekin, gogorarazi die prebentzio-neurriei eustez gain, informazioa garrantzitsua dela eta arrisku handia dakarrela alkohola eta bestelako drogak kontsumitzeak.

#### **Euskadi**

Marka eta Komunikazioa  
Marca y Comunicación

Tfn. 678 401 443  
[comunicacionalava@cruzroja.es](mailto:comunicacionalava@cruzroja.es)